

ZIRATS, IZUGARRIA DUK

Marc Egea

Eusk: Ele txera

ELENA eta **GUILLERMO** ohikerian sartutako ezkonduak dira. **ELENA**ri seme-alabak izatea gustatuko litzaiokeen, baina dagoeneko unea pasatu da. Azken aste hauetan, pinturaren zaletasunean hasi da **GUILLERMO**. Lehen koadroa amaitu berri du. Emazteri erakusten dio.

ELENA: Zirats... izugarria duk. Egiati izan nahi diat orain, koadro gehiago pintatzera animatu eta gure lagunei oparitzen hasi baino lehen, eta azkenean, auzo-erakusketa bat egin baino lehen, honelako... koadroz betea... Izugarria dualako. Eta inork ez dik esango. Bai, bazakiat orain horrela margotzen dela, pintura modernoak umemokoek egin ditizteala ematen diala. Eta bazakiat, baita ere, hori haur batek margotu zezakeala esateak ezjakin moduan uzten nauala. Bazakiat benetako dirutza ordaintzen diteala, hau baino itsusiagoak dituan koadroen truke. Bazakiat. Baina, zirats, bazakiat -entzun diat- hainbeste diru balio ditean zarama horietako itsusienak ere arrazoi bat diala, nahiz eta txikia izan, koadro horiek zerbait adierazteko pintatzen ditizteala. Eta horregatik ordaintzen ditek hainbeste: atzean diteanagatik. "Koadro hau Indiarra joan eta sekulako pobrezia aurkitu ondoren pintatu zian", "Hau bere anaia hil zuanean pintatu zian", "Hau halako gerra bati oroitzapena egiteko pintatu zian"... Esan zirats, hik... zer kontatu nahi duk? Ba al zagok ezer... lerro urdin horien atzean? Zirkulu marroi horren atzean? Horko barauts horren atzean? Txorta tzar horien atzean? Marra horien atzean? Brotxakada horien atzean? (Irakurtzen du) "Titulurik gabe lehenengoa".

Ez nauk gogaitzen ilusioa egiten dian hobby bat aurkitu izanak. Zer uste duk, ez nauala pozten afaltzen amaitu eta pintzelak hartzera joaten haizenean? Ados, telebistan ematen diatena ikusteko. Ez nauk gogaitzen, benetan. Nire iritzia eskatzen didak eta ematen diat. Izugarria duk. Baina hire umetxoa duk. Ezer adierazten ez dian umetxoa. Azter dezagun alde positiboa: ez dik ezer esaten... Gauetan lo egiten utziko ziguk, ez diagu medikuarengana eramane beharko, ez eta egunean bost aldiz bazkaldu eman ere; ez zioagu arropa erosi beharko, denbora gutxian txiki geratzen zaioalako, eta ez zioagu errieta egin beharko etxerako lanak egiten ez difialako, eta ez duk gauetan berandu iritsiko etxera, eta ez ziguk gure bizitzako atsekabea emango, poltsikoan zigarro bat aurkitzen ziogualako, eta ez duk gustuko ez difiagun lagunekin aterako, nahiz eta hark jende ona dituala esan, ez dik hik eta biok espero ez genian bikote batekin bukatuko, baina azkenean onartu egin beharko diaguna, eta ez duk iritsiko eguna, espero genian handitasunik gabe, etxetik alde egiten diala esaten ziguana, ez. Hor izango diagu beti, gurekin... Filma hastera zoak, zirats. Beste zerbait nahi huen?

Ele txera
Munduko zabalduz

